


## IMANOL LARZABAL

Imanol Larzabal 1947ko azaroaren 11an Donostian, Gipuzkoan, sortu zen eta 2004ko ekainaren 25ean Orihuelan , Alacanten, hil zen 57 urte zituela.

1964an kantatzen hasi zen. Bere lehen diskoa ezizen batekin atera zuen, Michel Etchegaray, Frankismo garaia baitzen. 1971an kartzelan 6 hilabete pasatu ondoren, Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen. Frantzia hainbat kantari ezagutu zuen: Paco Ibañez, zeinekin maiz kantatu baitzuen geroztik, Gwendal talde bretoaia, Elisa Serna , Georges Moustaki...

1977an amnistiaren ondoren, Hego Euskal Herrira itzuli zen eta kantatzen segitu zuen. Euskal olerkari aunitzen hitzak musikatu eta kantatu zituen: Jon Mirande, Mikel Arregi, Koldo Izagirre, Xabier Lete eta Juan Mari Lekuona. Gaztelaniazko zenbait testu ere musikatu eta interpretatu zituen.

Yoyesen omenaldian parte hartu zuen. Azkenean, Euskal Herritik kanpora joan zen bizitzera.



Kanta ospetsuak: Maitiak galde egin zautan, Mendian gora haritza, Poeta kaxkarra, Ilun ikarak, Lau haizetara...

Kanta:

Mendian gora haritza

<https://www.youtube.com/watch?v=HYVDmlk3E30>

Mendian gora haritza  
Ahuntzak haizean dabilta  
Itsasoaren arimak dakar  
Ur ganean bitsa.  
Kantatu nahi dut biritza  
Usteltzen ez bazait hitza  
Mundua dantzan  
Jarriko nuke jainkoa banintza.

Euskal herriko tristura  
Soineko beltzen joskura  
Txori negartiz bete da eta  
Umorez hustu da.  
Emaidazue freskura  
Ura eskutik eskura  
Izarren salda urdina edanda  
Bizi naiz gustora.

Euskal herriko poeta  
Kanposantuko tronpeta  
Hil kanpaiari tiraka eta  
Hutsari topeka.  
Argitu ezak kopeta penak heuretzat gordeta  
Goizero sortuz biritza ere  
Hortxe zegok eta.

Mundua ez da beti jai  
Iñoiz tristea ere bai  
Bainan badira mila arrazoi  
Kantatzeko alai.  
Besteia datozen penai  
Ez diet sunk bota nahi  
Ni hiltzen naizen gauean behintzat  
Egizue lo lasai.

**Egileak: Kiara Gutiérrez eta Aimar Lizasoain**

